

**IKERKETA-PROIEKTUAK EBALUATZEKO BALDINTZAK**  
**EUSKADIKO mIBEren ESKUTIK**


**AURKEZTEKO EPEA:**

Oro har, lehen aldiz ebaluatzen diren azterlanetarako E-mIBEk izapidetzeko onartzen du **bilera baino 10 egun lehenago** jasotako dokumentazioa\*, hurrengo bileran ebaluatu dadin (ikus [egutegia](#)). Hala ere, antolaketa-kontuak direla eta, epe horiek aldatu egin daitezke bileren urteko egutegira egokitzeko.

\* **Gutxienez protokoloa, informazio-orria eta baimen informatua, eta ikertzaileen konpromisoa; gainerako dokumentazioa lehenbailehen aurkeztu beharko da.**

Premiazko txosten bat behar izanez gero, mesedez, jar zaitetz harremanetan E-mIBEko idazkaritzarekin, epez kanpoko deialdian sartzea baloratzeko.

Gogorarazten da Euskadiko mIBEk medikamentuekin eta/edo osasun-produktuekin egindako azterlanak (**zentro bakarrekoak edo anitzekoak**) eta **zentro anitzeko** ikerketa-proiektuak baino ez dituela ebaluatzen. Nola jakin nire azterlana zentro anitzekoa den?



Tokiko IBE-en kontaktuak ikus ditzakezu E-mIBEren web-orriaren esteka honetan:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ceic-kontaktuak/web01-a2ikerpr/eu/>

### **OHAR GARRANTZITSUAK:**

1. Formatu elektronikoko artxiboak argi eta garbi **identifikatzen dituen izenburu** batekin izendatu behar dira, fitxategia ireki beharrik gabe zein dokumentu den jakin ahal izateko.
2. IKERTZAILE NAGUSIEI gomendatzen zaie mIBEn proiektu bat aurkeztu nahi badute lehenbailehen aurkeztu dezatela, alegia, lehendabizi, ordura arte ESKURAGARRI duten dokumentazioa bidal dezatela, eta, gerora, geratzen diren gainerako agiriak.
3. Finantzaketa jaso ondoren BAKARRIK egingo diren proiektuak **finantzaketa hori jasotzen dutenean ebaluatuko dira**. Ordura arte, eta azterlana etorkizuneko bileretan ebaluatuko dela jasota gera dadin, mezu elektronikoko bat bidaliko da izapidetzeko onartu dela jakinarazteko, etorkizuneko bileretan ebaluatze aldera. Ez da loteslea izango proiektuaren onespenearekin, erakunde finantzatzaileak hala eskatzen badu.
4. Ikerketa-proiektuetan elkarren segidako bi azpi-proiektu egin behar badira (adibidez, proba diagnostiko bat baliozkotu nahi denean), bi proiektuak modu independentean bidali beharko dira. Bakoitzak ezaugarri metodologikoen deskribapena eta berriazko baimen informatibo izango ditu.

Ebaluazio-eskaera telematikoki aurkeztuko da, esteka honen bidez: <https://www.euskadi.eus/baimena/ceim-e-ikerketa-azterlanen-ebaluazioa/web01-tramite/eu/>

Honako agiri hauek bidali beharko dira:

#### **1. LAGIN BIOLOGIKORIK GABE**

- EAetik kanpoko koordinatzaile bat duten eta beste batzorde batek jada onartu dituen ikerketa-proiektuetarako, koordinatzaile horrek sinatutako dokumentu bat aurkeztu behar da, non ikertzaile nagusiak EAEn parte hartzea onartzen duen (ikus eredia esteka honetako “Ereduak” erlaintzean: <https://www.euskadi.eus/informazioa/produktu-sanitarioen-ikerkuntza/web01-a2ikerpr/eu/>)
- EAEko ikertzailearen/ikertzaileen **konpromisoa** (ikus eredia esteka honetako “Ereduak” erlaintzean: <https://www.euskadi.eus/informazioa/produktu-sanitarioen-ikerkuntza/web01-a2ikerpr/eu/>)

<sup>1</sup> Dokumentuen bertsioa egitea: dokumentuen bertsioa egiteko modurik errazena eta zabalduena honako hau da: dokumentuari bertsio-zenbaki bat eta data esleitzen zaizkio; adibidez, 2012ko urriaren 18ko bertsioa. Bertsio hori dokumentuaren goiburuan edo orri-oinean txertatzen da Worden (Menuan: ikusi, goiburua eta orri-oina). Horrela, bertsioa dokumentu horren orrialde guztietan agertuko da.

- **EAEko ikertzailearen txosten** laburra, honako hauek azalduz: **praktika klinikoa, azterketa klinikoa bada**, proiektuaren garrantzia eta ikerketa-taldearen esperientzia.
- Ikertzailearen curriculum vitae-a, baldin eta E-mIBEk ikertzaile horren azterketa bat ebaluatzen duen lehen aldia bada
- Azterlana egiten den **zerbitzu nagusia onartzea**, baldin eta zerbitziburua ikertzaile nagusia ez bada (ikus ereduia esteka honetako “Ereduak” erlaitzean: <https://www.euskadi.eus/informazioa/produktu-sanitarioen-ikerkuntza/web01-a2ikerpr/eu/>).
- **Memoria zientifikoa, bertsioa eta datarekin**<sup>1</sup>. Eredua esteka honetako “Ereduak” erlaitzean kontsulta dezakezu: <https://www.euskadi.eus/informazioa/produktu-sanitarioen-ikerkuntza/web01-a2ikerpr/eu/>. Bertan, eduki behar dituen gutxienerako eremuak jasotzen dira.
- **Datuak biltzeko inprimakia/orria**
- **Baimen informatuaren dokumentuak, bertsioa eta datarekin**<sup>1</sup> (ikus ereduia esteka honetako “Ereduak” erlaitzean: <https://www.euskadi.eus/informazioa/produktu-sanitarioen-ikerkuntza/web01-a2ikerpr/eu/>)
- Azterketa beste IBE batek ebaluatu badu, **IBE horren aldeko txostena**.
- **Datuak kudeatzeko plana (memoriaren barruan egon daiteke): ikus [laguntza-dokumentua](#)**
- **Memoria ekonomikoa**. Halakorik ez bada, ez delako aparteko probarik edo bisitarik egin behar, ikertzailearen txostenean islatu behar den bezala, adierazi.

## 2. LAGIN BIOLOGIKOEKIN (GIZA ENBOR-ZELULEZ BESTELAKOAK)

1. puntuan zehaztutako dokumentazioaz gain, honako hauek ere aurkeztuko dira:

- Ikerketa-proiektuan Euskal Biobankuaren laginak erabiliko badira, lagapenaren ebaluazio etikoaren eskaera, Euskal Biobankuaren ordezkariak sinatuta.
- Laginak biobanku edo bilduma batean utzi behar direnean, horri egingo zaio erreferentzia, eta Karlos III.a Osasun Institutuan erregistratzeko izapideei buruzko informazioa emango da.
- Osakidetzako profesionalek webgune honetan eskura daitekeen baimen-eredua erabiliko dute: <https://www.euskadi.eus/informazioa/euskadiko-baimendutako-biobankuen-kanpoko-batzorde-etikoaren-ekintza/web01-a2ikerpr/eu/>
- Baimen informatuaren orriak, **bertsioa eta data**<sup>1</sup> barne, Ikerketa Biomedikoari buruzko uztailaren 3ko 14/2007 Legean eskatzen den informazioa jaso behar du. Laginak osasun-esparrutik ateratzen badira, helburuari, biltegiratzeko baldintzei eta datuak babesteko legeria betetzeari buruzko informazioa emango da.

## 3. GIZA ENBOR-ZELULEKIN (IPS)

<sup>1</sup> Dokumentuen bertsioa egitea: dokumentuen bertsioa egiteko modurik errazena eta zabalduena honako hau da: dokumentuari bertsio-zenbaki bat eta data esleitzen zaizkio; adibidez, 2012ko urriaren 18ko bertsioa. Bertsio hori dokumentuaren goiburuan edo orri-oinean txertatzen da Worden (Menuan: ikusi, goiburua eta orri-oina). Horrela, bertsioa dokumentu horren orrialde guztietan agertuko da.

a. Ikerketa garatuko den zentroko ikertzaile arduradunak eta legezko arduradunak sinatutako idazkia. Bertan, zentroak ikerketa egiteko baimena duela jasoko da, bai eta proiektuan zehar sortzen den edozein lerro pluripotente Zelula-lerroen Banku Nazionalari lagatzeko konpromisoa ere. Eredua esteka honetako “Ereduak” erlaitzean kontsulta daiteke: <https://www.euskadi.eus/informazioa/produktu-sanitarioen-ikerkuntza/web01-a2ikerpr/eu/>

b. Ikertzaile nagusiaren eta taldearen curriculuma. Ikertzaile nagusiaren eta proiektuko taldeko kide guztien nortasuna eta lanbide-kualifikazioa zehaztuko dira.

c. Proiektuaren memoria, bertsioa eta datarekin<sup>1</sup>. Bertan, gutxienez, honako hauek zehaztuko dira:

- Proiektuaren eta haren fase eta epeen deskribapena, proiektuaren esparruko ezagutza zientifikoaren egungo egoerari buruzko informazioa barne.
- Oinarrizko eremura mugatzearen edo aplikazio-eremu klinikora hedatzearen justifikazioa, helburuak eta zehaztapena.
- Material eta giza baliabideen deskribapena, baita proiektua garatzeko erabilgarri dauden baliabideena ere.
- Ikertzaile nagusiak aurkeztutako dokumentazioa, erabiliko diren protokoloen deskribapenarekin eta proiektuari dagokionez espero daitezkeen emaitzekin.
- Proiektuaren finantza-baldintzen eta aurrekontuaren deskribapena, eta irabazi-asmorik ezaren adierazpena eta konpromisoa.

d. Erabiliko den giza jatorriko material biologikoa zehazten duen dokumentua. Zelula-lerroak, horien tipologia eta jatorria zehaztuko dira.

e. Laginak Transferitzeko Akordioaren (MTA) kopia, Zelula-lerroen Banku Nazionalan gordailutu gabeko material biologiko ororentzat, baldin eta Espainian nahiz beste herrialde batzuetan dauden zentro edo erakundeetatik badatoz.

**mIBEren EBALUAZIO-BALDINTZEI BURUZKO ZALANTZARIK EDO IRUZKINIK BADUZU, JAR ZAITEZ HARREMANETAN mIBEren ADMINISTRAZIO-IDAZKARIAREKIN.**

TEL. – 945019296-945.015634 FAXA.- 945.019200 **e-maila:** [ceic.eaa@euskadi.eus](mailto:ceic.eaa@euskadi.eus)

EUSKAL BIOBANKUAREN DATUAK  
BERRIKUNTZA+IKERKETA+OSASUNA EUSKO FUNDAZIOA

<sup>1</sup> Dokumentuen bertsioa egitea: dokumentuen bertsioa egiteko modurik errazena eta zabalduena honako hau da: dokumentuari bertsio-zenbaki bat eta data esleitzen zaizkio; adibidez, 2012ko urriaren 18ko bertsioa. Bertsio hori dokumentuaren goiburuan edo orri-oinean txertatzen da Worden (Menuan: ikusi, goiburua eta orri-oina). Horrela, bertsioa dokumentu horren orrialde guztietan agertuko da.

[solicitudes.biobancovasco@bioef.eus](mailto:solicitudes.biobancovasco@bioef.eus)

[www.bioef.org](http://www.bioef.org)

BEC dorrea Ronda de Azkue, 1. 48902 Barakaldo. Bizkaia

Telefonoa: 94.453.68.90 Faxa: 94.453.04,65

<sup>1</sup> Dokumentuen bertsioa egitea: dokumentuen bertsioa egiteko modurik errazena eta zabalduena honako hau da: dokumentuari bertsio-zenbaki bat eta data esleitzen zaizkio; adibidez, 2012ko urriaren 18ko bertsioa. Bertsio hori dokumentuaren goiburuan edo orri-oinean txertatzen da Worden (Menuan: ikusi, goiburua eta orri-oina). Horrela, bertsioa dokumentu horren orrialde guztietan agertuko da.